

txintxarri

Giro hotza berotu dute

Kontzertuak, haur eta nerabeentzako jarduerak, aldarrikapen ekintzak, ospakizunak... denetik izan dugu Gabonetan / 6-7

Autoezagutzaren bidaiia baliotsua

Aiora Arrese Aierbe idazle lasarteoriatarrak 'Perdida encontrándome' poema bilduma ondu du / 2-3

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Albaola museoan aurkeztu dute 'Zerua lapurtu dute!' lana / 4

Hazten jarraitzen du TXINTXARRI-ren atari digitaleko trafikoak; iazkoak izan dira datu onenak / 5

Eider Redondo eta Hodei Murgiondo, Euskadiko proba konbinatuetako lehian, onenen artean / 10

LOKE Tennis ataleko kideek Gipuzkoako txapelketako finaleran lehiatu eta sariak lortu dituzte / 11

Eguberrietan kirolak ez du etenik izan; ekimen ugarian parte hartu ahl izan dute herritarrek / 12-13

Kultur agenda iragarri du udalak; zinema proiektzioak eta antzerkiak dira protagonistak / 15

UDAL EUSKALTEGIA - 2024-2025 ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK URTARRILAREN 31RA BITARTE

IKASTARO ERDIKO MATRIKULAZIOA



**C1
16-18 URTEKOENTZAT
35 EURO**

AURREZ AURREKOAK

Hiru ordutegi aukeran
Txandaka aritzeko aukera guztietan

AZTERKETEN PRESTAKETA

HABEren maila guztiak, A1etik C1era
A1 eta A2 mailak Euskaltegian bertan lortzeko dira.
OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZAINNTZA

INFORMA ZAITEZ

Diru-laguntza:
85% ikasle guztientzat
Eta deskontuak gazte eta langabetuentzat



Iñigo Gonzalez Sarobe

Bitxia da hitz bakar batek zenbat gauza barnebildu ditzakeen. *Autoezagutza* da horren adibide bat, hau da, norberak bere burua ezagutzeko hasi bai baina bizi artean bukatuko ez duen bidaia: beldurra, segurtasun eza, maitasuna, laguntasuna, faltsukeria, adrenalina, errusiar mendien pareko gorabeherak, tristura, amorrua, haserrea...

Horrekin guztiarekin koktel eder bat egin du Aiora Arrese Aierbe (Lasarte-Oria, 2005) idazle gazteak: *Perdida encontrándome* poema bilduma. Otsailaren 24ra arte egin dezakete eskaera aipatu liburu hori erosi nahi dutenek. Egilearen "aurreneko helburua" 25 eskakizun jasotzea zen. Bigarrena, zifra bikoiztea; lortu berri du hori ere. Behin horraino helduta, gustatuko litzaioke "80 edo gehiago" izatea, aleak hartu eta dendetan uzteko. Irakurgaiak erostera joaten denean "asko" gustatzen zaio, aurrena, aukeratzea, eta, gero, etxera eramatea, hitz artean bidaiatzeko. Oraingoan, bera da irakurleei bidaia literario zirraragarri bat proposatzen diena.

Nondik dator esku artean duzun proiektu hau?

Betidanik gustatu izan zait idaztea baina 2021ean murgildu nintzen barrurago, terapia egin ostean poesia ezagutu nuenean. Gehiago inbestigatu ahala gero eta gehiago sartu nintzen; oso ariketa terapeutikoa izan zen niretzat eta hasieratik gustatu zitzaidan asko. Liburu bat idaztea erabaki eta titularra bururatu zitzaidan aurrena, *Perdida encontrándome*. Pentsatu nuen: 'Gustatu zait, agian egin dezaket gehiago hemendik abiatuta'. Izenburuak bildu du dena.

Hiru urte pasatxo daramatzazu poemak idazten, beraz. Hasierakoetatik azkenekoetara artekoak jaso dituzu? Nola aukeratu dituzu?

Idatzitako guztia jaso, inprimatu eta mahai gainean jarri nuen. Orduan erabaki nuen autoezagutzari buruz hitz egin nahi nuela eta gai horrekin zerikusien gehien zutenak aukeratu nituen. Hori egin eta gero, Diversidad Literaria argitaletxearekin jarri nintzen harremanetan, nire irakasle baten laguntzarekin, eta egitasmok aurrera egin zuen. **Zenbat poema bildu dituzu?**

Ba 46 bat daude, eta, kapitulu bakoitzaren hasieran, irakurlea

"Pertsona bakoitzaren bihotzean dago bere magia"

AIORA ARRESE AIERBE IDAZLEA

Lasarteoriatar gazteak 'Perdida encontrándome' poema liburu idatzi du, bere bizipen pertsonaletatik abiatuta; "autoezagutzaren balioa" erakutsi nahi du



Lasarteoriatarra 2021ean hasi zen poesia idazten. AIORA ARRESE

kokatzeko testu bana. Amaierarako beste bat idatzi dut eta go-goeta orokorrago bat da, autoezagutzaren balioari buruzkoa, nire ikuspegitik.

Zer ikuspegi duzu autoezagutzaren balioari buruz?

Oso gauza pertsonala dela esango nuke. Bakoitzak du bere burua ezagutzeko modua, askotan norberaren bizipenetatik eratorzen dena: harremanak, gauza berriak, esperimentuak... Ezagutzen dituzu zure trebetasunak, indarguneak eta ahuleziak, eta baita ere nondik jo nahi duzun bizitzan; nola aurkitu eta ezagutu zure burua.

Zein helbururekin idatzi duzu 'Perdida encontrándome'?

Nagusiki, autoezagutzaren balioa erakusteko, irakurriko dutenak horretaz jabetu daitezen. Konturatu daitezela bizitzan dena ez dela itsusia, guztia ez dela

"BORROKATU EGIN BEHAR DUGU GURE AMETSAK LORTZEKO; EZINBESTEKOA DA KONPROMISOA"

"BELDURRA ETA SEGURTASUN EZA IZAN DIRA LIBURUAN GEHIEN AZALERATU DITUDAN EMOZIOAK"

polita; bide eta irtenbide desberdinak ditu.

Liburu bat irakurri edo abesti bat entzuten dudanean, hitz edo esaldi batekin geratzen naiz eta pentsarazi egiten dit: zerbaite berria pizten du nigan. Baliotsua iruditzen zait eta gustatzen zait sentipen hori besteengan ere eragitea.

Gero eta gizarte frenetikoago batean bizi garen honetan, lan honek balio dezake arnasa hartu eta norberak bere barrura begiratzeko?

Bai. Gainera, iruditzen zait askotan berehala lortu nahi dugula dena, aurreneko saiakeran. Eta beti ezin da. Oso presente izan dut hori. Beti esaten dut ametsak lortzeko borrokatu egin behar dugula eta bide horretan oso garrantzitsua dela norberak hartzen duen konpromiso maila. Horrez gain, hala behar izanez gero, laguntza eskatzea gakoa da: familiarena, lagunena, profesionalena... Liburu bat idaztea erabaki nuenean nire kasa egin nahi nuen den-dena eta ohartu nintzen ez zela posible. Nire ametsetakoa bat zenez, laguntza uzartu nuen konpromiso pertsonalarekin: egunero idatzi, proiektuarekin aurrera egiteko beharrezko deiak egin, promozionatzeko lanak burutu, eta abar.

Nolakoa izan da poema liburu idazteko bidea?

Bizipenak izan dira batzuetan oso onak eta besteetan oso txarrak; goi-goian egon naiz eta oso frustratuta ere bai. Iruditzen zait errusiar mendi etengabeko bat bezalakoa dela bizitza. Momentu onak eta txarrak bizitzeak ahalbidetu didate bihotza ireki eta zaurgarritasuna erakustea. Pertsona guztiok dugu hori eta ez dugu itxi behar; ez digu beldurrik eman behar erakusteak.

Une txarretan, amore ematea burutik pasa zaizu?

Egia esan sendabide moduko bat izan da eta uneoro eutsi diot. Familiaren eta lagunaren babesak asko lagundu nau eta baita ezagutzen ditudan artisten animoek ere. Niretzat oso pertsona berezia den Lorea Intxaustik, adibidez, hitzaurrea idatzi du, eta horrek ere indarra eman dit.

Zer ematen dizu idazteak?

Nire zauriei tiritak jartzea bezala da. Zalantza uneetan idazten dut eta erantzunak jasotzen ditut: zeintzuk diren indarguneak eta ahuleziak, zer dudak gustuko eta zer ez, ametsak, bizitzan zer ez dudak nahi... Hau da, autoe-

zagutzari lotutako kontuak. Liburuaren izenburuak berak dioen moduan, galduta nengoen eta nire burua aurkitu nahi nuen; ireki behar izan ditut bide desberdinak eta emozio ugari onartu. Ez da erraza izan, baina bizitza eman dit. Uste dut beti egongo garela galduta gure burua aurkitzen dugun bitartean, ez dugula inoiz bukatuko hori egiteaz. Bizitza eboluzioa da eta bide horretan ia egunero aldatzen da zerbait.

Gomendatzen duzu autoezagutzaren bidaiari ekitea? Liburu hau irakurtzea aukera bikaina izan daiteke hasteko...

(Barreak) Bai, bai... Irakurleek ezagutuko dute beste ikuspegi bat, berezia, uste dudalako ez duela edozein pertsonak egiten horrelako ariketa bat, horren pertsonala eta zuzena. Izen-abizenik ez dut erabili baina adierazi beharrekoa nahi izan dudana bezala espresatu dut.

Bestela esanda, idazterakoan ez zarela itzulginguruka ibili...

Idaztea, niretzat, askatzeko modu bat da eta arauetatik at aritzekoa ere bai. Ez dut kontuan izan nola esan dudana liburuan jaso dudana; adibidez, irainak erabili ditut... Ni horrelakoa naiz, eta kitto.

Beldurra eta segurtasun eza etengabe azaltzen dira liburu honetan; horiek dira gehien azaleratu ditudan emozioak.

Horiez gain, zer gehiago?

Emozio asko ditut nire barruan, gainerakoek ere badituztenak: maitasuna, laguntasuna, faltsukeria, adrenalina, gora eta behe-ra egitea, tristura, amorrua, haserrea, gizartean ikusten ditudan egoerak...

Koktel ederra egin duzu, beraz.

Bai, gustatzen zait hori guztia landu eta horri buruz idaztea. Bidaia polita izan da.

Polita, eta, kanpotik begiratuta, ausarta ere bai... Guztion eskura jarri duzu oso pertsonala den zerbait: barruan daramazuna.


Bai. Halere, esan behar dut den-dena ez dela nigan bizitakoa; esperimentatu dut baita ere nire inguruko tokian jarri eta euren sentimenduekin enpatizatzearekin, eta, hori eginda, ni neu nola sentitu naizen aztertzearekin.

Pertsona batzuek eskatu izan didate beraiei pasa zaien zerbaiti buruz idazteko. Testuak prestatu eta horiek irakurtzean sentitzen dutena jasotzeak asko betetzen nau. Besteak beste, horregatik erabaki dut proiektu hau egitea. Askotan garunetik bizi gara baina pertsonon magia bakoitzaren bihotzean eta hori erakustean dago: barruan daramazuna onartu behar dugu eta maskararik ez jarri, ez dugulako behar.

Nahikoa baduzu esku artean duzun egitasmoarekin, baina, kazetariok beti kazetari, eta hona hemen ia derrigorrez egin beharreko galdera bat: etorkizunean gehiago idatzi eta argitaratzeko asmoa duzu?

Bai. Aurreneko liburua bukatu nuen unean bertan pentsatu nuen hori. Segituan izan nituen ideia eta helburu berri bana, egitasmo berri bat eta horretan zer adierazi eta landu nahi dudana. Konpromisoa berriro hartu eta bide berriak irekitzen jarraitu nahi dut. *Perdida encontrándome* itxita dago, amaiera bat du, baina oraindik asko dut lantzeko, ikasteko eta bizitzeko. Orduan, etorriko dira gauza gehiago, seguru.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus-en



Liburuaren azala. AIORA ARRESE

Otsailaren 24ra arte

Abenduaren 24ean ekin zion Aiora Arrese Aierbe idazle lasarteoriatarrek ondu duen 'Perdida encontrándome' poema bilduma promozionatzeari. Azaldu duenez, bi hilabeteko epea dute interesa duten pertsonak eskaerak egiteko, Diversidad Literaria argitaletxearen atari digitalean. Bertan nabigatu ahalko dute irakurleek, azpiko QR kodea sakelako telefonoarekin eskaneatzen badute.



Kuadrilla ederra igo zen Buruntzara, Urtezahar egunean. SORGIN JAIK

Sorginen jardunaren berri, WhatsApp bidez ere bai

Urtea primeran bukatu dute herriko sorginek, elkarrekin Buruntzara igota. 2025erako ekimen ugari dituzte buruan

Txintxarri

Sorgin Jaiak eragilea osatzen dutenek jakinarazi dute euren jardunaren berri emateko bide berri bat ireki dutela, WhatsApp mezularitza aplikazioan zabaldu duen kanal bat irekita. Bat egin eta sorginen komunitate digitaleko partaide izan nahi dutenek albiste honetako QR kodea eskaneatu dezakete sakelako telefonoarekin, edo, bestela, esteka hau erabili: <https://www.whatsapp.com/channel/0029VawRrZZ3bbUzC0xKth2F>.

Kanal hori martxan dute dagoeneko sorginek, eta, besteak beste, aurtengo jai alternatiboetarako proposamenak jasotzeko galdetegi bat prestatu eta zabaldu dute, herritarrek euren iradokizunak antolatzaileekin parteka ditzaten. "Hurrengo urteari begira, Sorgin Jaien bitartez herriko gazteontzat hainbat ekintza ditugu lapikoan. Hala eta guztiz

ere, gure proposamenaz gain, zuen ideiak ere entzun nahiko genituzke... Ba al duzu 2025 urterako ekintza proposamenik? Zuen ideiak irakurriko ditugu", adierazi dute eragileko kideek.

Joan den urteko azken ekimena Urtezahar egunean Buruntzara mendira igotzea izan zen. Zubi-peko biribilgunean elkartu eta bederatziak pasatxo ekin zioten espedizioari; kuadrilla ederra elkartu zen eta tontorrean talde argazki polita atera zuten.



txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



Disko ipuin ilustratua aurkeztearekin batera, hiru bideoklip grabatu dituzte pailazoek Albaola Itsas faktorian. OARSOALDEKO HITZA

Pasaiako Albaolatik begiratu dute zerura

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek euren azken lana aurkeztu dute Pasai San Pedroko Albaola Itsas Faktorian. Katxiporretaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen elkarlanetik sortu den disko liburu ilustratua da. Azken erakunde horretako ordezkariak ere bertan izan dira

Txintxarri

Hainbat lagun ondoan egin dute sudurgorri lasarteoriatarrek kaleratu duten *Zerua lapurtu dute!* azken lanaren aurkezpena,

Pasaiako Albaolan. Orain arte argitaratu dituztenak bezala, hori ere etxeko txikienei eta euren senideei zuzendutako lana da, eta, oraingoan, Aran-

zadi Zientzi Elkarteako astronomia sailarekin elkarlana sortu dute pailazoek.

Herritarrek argi kutsaduraz, pantailen erabileraz eta natu-

raren zaintzaren garrantziaz hausnartu eta hortaz jabetzea du xede aipatu lanak. Leire Bilbao arduratu da testuak idazteaz, eta, ilustrazioak, aldiz, Irrimarra-ko Karmele Gorroñok egin ditu. Diskoko kantuak, berriz, Xabier Zabalak sortu eta moldatu ditu. Aurkezpenean jakinarazi dute liburu dendetan erosteko aukera dutela, baita Aranzadiren web orrialdean ere, honako helbide honetan: <https://aranzadielkartea.bigcartel.com/product/zerua-lapurtu-dute>.

Irakurtzeko, erraza

Zerura begiratzeko ohitura galdu egin dela nabarmendu dute proiektuaren parte direnek, aurkezpenean, eta hori berreskuratzeko garrantziaz ere mintzatu dira; kontakizuneko protagonista eta Aranzadi Zientzi Elkarteako astronomia saileko dibulgatzaile Virginia Garcia Penak azaldu du telefono mugikorretako GPS sistematik gabe bidea jakiteko balio duela. Horrekin batera, auhendatu du egun, zerura begiratu eta ez direla izarrak ikusten, eta horren arrazoietako bat zein den ere agertu du: farolek goraka argizatzea. Hori guztia kontuan hartuta erabaki du lantaldeak proiektuari *Zerua lapurtu dute!* izena ematea. Horrekin guztiarekin batera, Pirritx pailazoak adierazi du ipuina "irakurterraza" dela.

Proiektuaren aurkezpena Albaolan egitea ez da ausaz hartu

duten erabaki bat izan. Leku hori nabigazioarekin erabat lotuta dago, eta bertako presidente Xabier Agotek azaldu du izarrak begiratzeko lekurik egokiena dela itsasoa, izan ere, ez baitago gizakiak sortutako argirik. Honako adierazpenok gaineratu ditu: "Izarrek norabidea hartzen laguntzen dute, eta Ipar Izarra da horretarako garrantzitsuena, izan ere, mugitzen ez den izan bakarra da, eta iparra markatzen du".

Material didaktikoa

Ipuin disko ilustratua material didaktikoa ere topa daiteke. Hori eskuratu nahi duenak, ipuinaren azken orriak dakarren QR kodea eskaneatu beharko du. Katxiporretak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak elkarlanean sortu duten honako orrialde honetan ere lor daiteke material hori guztia: <https://zerualapurtudute.aranzadi.eus/>. Atari hori poliki-poliki elikatzen joango direla azaldu du Porrotx sudurgorriak.

Agerraldia baliatu dute disko hiru abestiren bideoklipak grabatzeko; Albaolan aurrera eraman dituzte lan horiek ere. Guztira hamazazpi abesti batu dituzte proiektuan, eta horietatik guztietatik honako lau hauek dira berriak: *Piztu iluna*, *Ipartargia*, *Nanoplaneta* eta *Altxa burua*. Horietarako koreografo lanak Izaskun Forcadak egin ditu, eta aipatu azken abesti horretan pailazoekin batera aritu dira Zubietako eskola txikiko hainbat haur.

Buruntzaldeko etorkizuna "lehentasunezkoa" da EAJrentzat

EAJko Buruntzaldeko ordezkariekin bildu da Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakari Maria Eugenia Arrizabalaga

Txintxarri

Eskualdea osatzen duten sei udalerrietako ordezkariekin elkartu da Arrizabalaga, Buruntzaldeko "erronka politiko, sozial eta ekonomikoei aurre hartzeko estrategia" lantzen hasteko.

Hiru helburu nagusi finkatu ditu EAJk: lurraldeko lehen indarra izatea, aldaketarako eta berrikuntzarako eragile izaten jarraitzea eta abertzale-tasunaren etorkizuneko erron-

kei erantzunak ematea, "ikuspegi ireki eta zabalagoa oinarri". GBBko presidentek osatu nahi du proiektu politiko "berritu" bat, egungo egoera politikoaren diagnostikotik abiatuta, eta Buruntzaldeko talde jeltzaleetako ordezkarien ekarpenekin aberastu nahi du. Gauzak horrela, topaketa horretan parte hartu dute Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo alderdikideek. Gure udalerriko EAJren

izenean Estitxu Alkorta bertaratu da bilerara.

Arrisku handienak, "populismoa eta demagogia"

Arrizabalagaren iritziz, demokraziak mundu mailan dituen "arrisku handienak" dira "populismoa eta demagogia", eta Gipuzkoa "ez da horren salbuespena". Horren aurrean "benetakotasuna" defendatu du, "eguneroko lanetik" herria erakitzeke, horretarako EAJ alderdiaren "betiko nortasuna" errebendikatuta, betiere "iziera berritzaile batekin". Gauzak horrela, GBBko buruaren irudiko, jeltzaleek aurre hartu behar diete euskal gizartearen erronkei, "modu proaktiboan jardunda".



Buruntzaldeko EAJko ordezkariak, tartean Estitxu Alkorta herritarra. GIPUZKOAKO EAJ

Ildo horretatik, gizarte, kultura eta ekonomia alorretako nazioarteko eragileekin "sare berriak" eratzeko konpromisoa hartu du Arrizabalagak, hel-

buru hauekin: "Gure ikuspegi abertzalea maila guztietara zabaltzea, herria maitatu, herritar guztiak errespetatu eta herri-eragintza eraginkorra egin".

Areagotu egin da trafiko digitala 2024an

TXINTXARRI aldizkariko lantaldea webguneko datuak neurtzen hasi zenetik ez du inoiz datu hoberik erregistratu: irakurleek 360.803 orrialde bisitatu dituzte amaitu berri den urtean, 2023an baino ia %9 gehiago. Eduki ikusiena sanpedroen programa izan da

Txintxarri

Urtea bukatzearekin batera www.txintxarri.eus atari digitalaren trafikoa aztertu ohi du TXINTXARRI aldizkariaren lantaldeak, eta, beste behin, errepaso albistearen titularrean nabarmendu duena izan da atari digital horren trafikoa hazten jarraitzen duela, izan ere, inoiz baino orrialde gehiago (360.803) bisitatu dituzte sekula baino erabiltzaile gehiagok (61.928); horretarako, aurretik erregistratutakoak baino saio

gehiago abiatu dituzte, zehazki, 156.248.

Iaz erregistratutako adierazle horiek duela bi urtekoekin alderatuta, bisitatutako orrietan izandako igoera da guztietan nabarmenena, %8,8 hazi baitira (2023an 331.586 bisita erregistratu zituen herri komunikabideak). Eduki horietan guztietan %4 erabiltzaile gehiagok nabigatu dute eta %3,5 saio gehiago hasi dituzte gertutasunez eta euskaraz informatzeko erabili dituzten gailu digitaletan.

Atari digitaleko trafikoa gero eta jendetsuagoa izatea ez da kasualitatea eta arrazoi ugari erantzuten die, batez ere, TXINTXARRI-ren lantaldeak 2020. urtean abiatutako apustuari, hau da, papera alde batera utzi gabe webgunea eguneroko lanaren ardatz bihurtu izanari. Horrekin batera, jakina, zerikusi izugarria du Lasarte-Oria horren herri aktiboa izateak: norbanako, erakunde, eta, batez ere, elkarte edo eragile, urtero-urtero aurrera era-

maten dituzten ekimenen albiste, kronika, argazki galeria eta bideoek irakurle ugari erakaritzen dituzte.

Sanpedroak eta 23. Korrika

Albiste honen azpiko arrosa koloreko zatiduran kontsulta ditzakezue zeintzuk izan ziren 2024ko hamar eduki ikusienak. 2023an gertatu bezala, San Pedro Jaietako egitarauari buruzko albiste izan zen irakurleengan jakin-min gehien piztu zuena, 2.097 ikustaldirekin. Lasarte-Oriarrak desiatzen egon ohi dira festetako ekimen gozagarrien berri izateko eta horrek eragin ohi du horrenbesteko trafikoa. Udalak egun berezi horietarako kontratatutako kontzertu nagusiei buruzko artikuluak ere bisita oldea ekarri zuen atari digitalera, ia mila (928 izan ziren, zehazki). Sailkapena itxi duen hamargarren edukiak ere izan du lotura gai horrekin, zehazki, herriko gazteek aurrera eramatea dituzten Sorgin Jaiekin.

Iaz nabarmendu zen beste ekimenetako bat izan zen euskararen aldeko lasterketa erraldoia, 23. Korrika. Martxoaren 19an iritsi zen, Urnietatik, gaueko hamarrak pasatxo zirela, eta ekimen horren bueltan argitaratutakoak asko ikusi dituzte irakurleek: lasterketa nagusiaren zein Korrika Txikiaren kronikak edota lasterkariak herri-iritsi aurretik egindako ibilbidearen errepaso.

Hamar eduki ikusien zereन्द्रa osatzen dute Zabaletako jaietako egitarauaren iragarpenak, Lasarte-Oria Osasungintza Publikoaren Alde (LOOPA) plataformak antolatutako manifestazioaren kronikak eta zorigaitzeko bi albistek, Juan Luis de la Mata eta 44 urteko lasarteoriatar baten heriotzek.

Amaitzeko, TXINTXARRI-ren lantaldeak eskerrak eman nahi dizkie bidelagun dituen lankide, babesle, norbanako eta elkarte guztiei. Jarrai dezagun gertutasunez eta euskaraz lanean!

2024ko hamar eduki ikusienak TXINTXARRI aldizkarian



SAN PEDRO JAIEAKO EGITARAUA AURKEZTU DUTE

2.097 IKUSTALDI

Uztaileko errepasotik hona ez da aldaketarik egon eta San Pedro Jaietako ekimenak jasotzen zituen egitarauari buruzko albiste izan zen irakurleek gehien ikusi zuten edukia.



LOTME ELKARTEKO JUAN LUIS DE LA MATA HIL DA

1.101 IKUSTALDI

Espero gabeko heriotza izan zen Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kide Juan Luis de la Mata *Juanlu*-rena. Taldekide batekin mendian barrena zihoala bihotzkoak eman zion.



23. KORRIKAK HERRIAN EGINGO DUEN IBILBIDEA

997 IKUSTALDI

Euskararen aldeko lasterketa Lasarte-Oriara iritsi aurretik, 23. Korrikak udalerrian barrena egingo zuen ibilbidearen berri eman zuen TXINTXARRI aldizkariak.



SANPEDROETAKO KONZERTU NAGUSIAK IRAGARRI DITUZTE

928 IKUSTALDI

Sanpedroetako egitarau osoak piztu zuen irakurleen jakin-mina iaz, eta, bereziki, udalak ekarriko zituen taldeen zerrendak: ETS, Bulego, Star Ways, Belako, Alargun Beltzak, Maruja Limon...



HERRI BATEN HARROTASUN ERAKUSTALDIA

677 IKUSTALDI

Martxoaren 19an igaro zen 23. Korrika gure herritik, Lasarte-Oriatik, iluntzean: Urnietatik etorri zen gaueko hamarrak pasatxo eta ehunka izan ziren lasterka egitera animatu zirenak.



LASARTEORIATAR BAT HIL DA AUTO ISTRIPUZ

520 IKUSTALDI

Urtea amaitu aurretik beste berri lazgarri batek kolpatu zuen udalerria, izan ere, 44 urteko herritar bat auto istripu batean hil zen, N-1 errepidean, Gasteizko noranzkoan, Tolosa paretik gidatzen ari zela.



HARRO EGOTEKO MODUKO BELAUNALDI BERRIAK HERRIAN

501 IKUSTALDI

Korrika lasterketaren urteetan ohitura dute herriko ikastetxeetako ikasleek euskararen alde lasterka aritzeko. Harro egoteko moduko belaunaldi berriak ditugula erakutsi zuten.



ONGIETORRI BEROA EGINGO DIOTE TERESA SORGIÑARI

482 IKUSTALDI

San Pedro Jaiean eta udarako parranda ugarien aurrekari izan ohi dira Zabaleta auzoko festak. Antolatzaileek agerraldia egin zuten ekimenen programa iragartzeko eta irakurle askok kontsultatu zuten.



OSASUNGINTZA PUBLIKOAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA

476 IKUSTALDI

Lasarte-Oria Osasungintza Publikoaren Alde plataformak (LOOPA) aurrera eraman zuen aurreneko ekintzetako bat izan zen herriaren erdigunea zeharkatu zuen manifestazio jendetsua.



BADATOS SORGIN JAIK!

475 IKUSTALDI

Okendo plazako arkupeetan elkartu ziren herriko gazte ugari, sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik, Sorgin Jaiak gisa ezagutzen ditugun festa alternatiboen egitaraua aurkezteko. Bost egunez sorgindu zuten udalerria.

Eguberri mugituak

Urteko garai hauetan ohikoa izan ohi den moduan hotzak izan dira giroa eta tenperatura. Edonola ere, hori berotzen lagundu dute herritar, elkarte eta erakundeek Gabonetako bi asteetan aurrera eraman dituzten mota askotako ekimenek: kontzertuak, pertsonaia maitatuei ongietorriak, aldarrikapen ekintzak, jolasak, eta abar. Argazki erreportaje honetan jaso ditugu jarduerari horietako askoren argazkiak; kirol alorrekoak izan direnak, berriz, 12-13 orrietan.

Alboka Abesbatzako lagunen Eguberrietako kontzertua eta Ttakun Kultur Elkarteak udalaren laguntzarekin antolatutako San Tomas eguneko azoka eta Mari Domingiri eta Olentzerori egindako harrera izan ziren aurrenetako ekimenak. Haurrek primeran pasatzeko aukera izan zuten Jaizkibel plazako karpa magikoan edota Marsel magoaren Magiaderia absolutuak magia ikuskizunean. Halaber, azken urteetan ohiko bihurtu denez, gospel doinuez gozatu ahal izan zuten kultur etxera bertaratu ziren herritarrek; Nightindale Gospel Quintet boskote frantsesak emanaldi ederra egin zuen. Musika jarduerekin jarraituta, aipatzekoa izan zen hilaren 4ko kontzertu arratsalde-gaua: Anuk eta Elene, Odolaren Mintzoa, XSakara eta Hazas&Jagoba artistak aritu ziren Jalgi Kafe Antzokian eta Okendo plazan. Hurrengo egunean, hiru Errege Magoak izan ziren udalerrian: Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

Bestalde, aldarrikapenek ere presentzia izan zuten Eguberrietan: Palestina eta Libanori elkartasuna adierazi zieten abenduaren 27an, eta, lau egun geroago, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde atera ziren kalera.



Eguberrietako kontzertua eman zuen Alboka Abesbatzak, Brigitarren komentuan. TXINTXARRI



Txu-txu trenera igo eta herrian osteratxo bat egiteko aukera ez zuten galdu herritarrek. TXINTXARRI



Talogileak, jo eta su lanean, San Tomas eguneko azokan. TXINTXARRI



Giro ederra izan zen Okendo plazan, San Tomas egunean. TXINTXARRI



Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera egunari kantu jirarekin ekin zioten. TXINTXARRI



Ikuskizun koloretsua egin zuten Mari Domingi, Olentzero eta lagunek, Loidibarren frontoian. TXINTXARRI



Karpa magikora bertaratutako haurrek primeran pasa zuten. TXINTXARRI



Marsel magoak 'Magiaderia absolutuak' ikuskizuna ekarri zuen kultur etxera. TXINTXARRI



Aldarrikapen ekintzek ere tokia izan zuten Eguberrietan: ezkerrean, Palestina eta Libanoren aldeko elkarretaraztea; eskuinean, Sareren 'Behin betiko' manifestazioa, Urtezahar egunekoa. TXINTXARRI



Nightindale Gospel Quintet boskote frantsesaren kontzertua. TXINTXARRI



Odolaren Mintzoa talde usurbildarrak geldialdia egin zuen herrian, amaiera biraren barruan. TXINTXARRI



Meltxor erregea, Atsobakar egoitzako egoiliar batzuei opariak ematen. TXINTXARRI



Brigitarren komentuko mojek gustura asko jaso zuten Errege Magoen bisita. TXINTXARRI

Sukaldeko tresnen izenak ezagutzen al dituzu? Den-denak? Hona hemen horietariko batzuk. Lotu irudi bakoitzari bere izena.


Baina izen bat falta da. Ba al dakizu zein tresnari dagokion?

- ELTZEA
- BIRRINGAILUA
- LABANAK
- AZAL-KENTZEOA
- ERRETILUA
- IRAGAZKIA, TXANOA
- GATZONTZIA
- MIKROUHIN-LABEA
- ESTALKIA, TAPA
- ARRABOLA




- XUKADERA
- BURRUNTZALIA
- AMANTALA
- MOLDEAK
- ESKULARRUA
- ZUKUGAILUA
- KORTXO-KENTZEOA
- IRABIAGAILUA
- BITSADERA
- ZARTAGINA
- ESPATULA

Zein da zein



Hizki-Mizki

Eraman hizki bakoitza bere geziak seinatzen duen borobilerara eta tresna honen izena agertuko zaizu.



Itzala


Zein da orein janzilari honi dagokion itzal zuzena?



DOMINOAN

Bide batez, margotu zure gustura.


Osatu lauki zuriak elurretako domino zati hau zuzena izan dadin.



Lapurrak!

Zenbat lapur ikusten dituzu etxe barruan, inguruan edo barrura sartu nahian?

Bide batez, margotu.



Hara!

Bestereña baimenik gabe hartzen duenari nola esaten diozu zuk? Lapur? Badu beste izenik ere, hemen sei aurkituko dituzu. Zirriborra itzazu zuzenak ez diren hirurak.



TXORIBURU

ZIRTOLARI

XISKALARI

EBASLE

LITXARRERO

HARRAPARI

HIGUINGARRI

ESKULUZE

OHOIN

Engainagarriak

Sei biribil hauetatik bi iruditik hartuta daude eta gainontzeko laurak engainagarriak dira, hau da, ez datoz guztiz bat irudiarekin. Bereiz itzazu.



Eman kolorea gure laguntxo hauei, merezi dute eta.



Hamarrekoa

Aurkitu bi eskiatzaileen artean dauden aldeak. 10 dira guztira.

Herritarrek, proba konbinatuetan saria

Proba konbinatuetako 16, 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketa lehiatu da, hilaren 3an eta 4an Donostiako belodromoan. 16 urtez azpiko mailan bi herritar izan dira podiumean: Eider Redondo Juarez eta Hodei Murgiondo Hernandez

Txintxarri

Pista estaliko bakarkako txapelketa garrantzitsuak hasi dira. Lehena proba konbinatuetako 16, 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketa izan da. Hilaren 3an eta 4an, lehiatu zen hitzordua Donostiako belodromoan. Ostadar SKTko Eider Redondo Juarez eta Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo Hernandez herritarrek gaztetxoeren mailan gogor borrokatu eta lehen hiru postuetan amaitu dute txapelketa.

Talde urdin-beltzeko Redondok lortu zuen posturik onena; pentatloi modalitatean parte hartu eta txapelketa izan zen.

60 m. hesi zein 600 m. lasterketak, altuera, pisu jaurtiketa eta luzera jauzia probei aurre egin behar izan ziren. Ederki jardun



Redondo (ezkerrean) eta Murgiondo (eskuinean), podiumetan. G. REDONDO/J. MURGIENDO

zen atleta gaztea; 600 m. lasterketan bakarrik jaitzi zen lehen postutik eta 3.216 punturekin – bere marka ondu zuen – urrezko domina jantzi zuen. Ez zen berriro izan marka pertsonal bakarra izan, 60 m. hesi proban (09,34) ere lortu baitzuen.

Bi hobekuntza horiei esker, gainera, bere mailako proba

konbinatuetako zein bakarkako Espainiako txapelketarako gutxienekoak lortu ditu herritar gazteak. Murgiondo, aldiz, hexathloi modalitateko txapel-dunorde izan zen; emaitza ederra hori ere.

Atletico San Sebastian taldeko kidea luzera jauzian (5,12 m.), pisu jaurtiketan (9,67 m.)

Eguberrietan ere, lehen postuetan

Lasarte-Oriako korrikalari gehienek herriko San Silvestre lehiatzen ematen zioten amaiera 2024ari. Hala ere, izan zen herritak mota horretako beste lasterketaren batean parte hartu zuenik, hala nola, Donostian, Asturiasen edo Zegaman. Azken horretan Aloña Mendiko Jon Presa Herranzek (16.16) azken metroetan galdu zuen garaipena Beñat Ibañez Aristegiren (16.15) aurka.

Podium horretaz gain, abenduaren 22an, 41. lurretako Hiri Proba lehiatu zen lurretan, Bizkaian eta Presak 10 kilometroetako Euskadiko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen.

Asturias aldean ere podiumean izan zen Mari Carmen Olosa herritarra. Gijonen izan zen aurrena, Gabon gaueko 5 kilometrotako proban, eta 55 urtetik gorako emakumezkoen kategoriako seigarren denbora onena egin zuen: 23.07. Egun batzuk geroago Mieres udalerriko San Silvestrean jardun zen eta kategoria horretako bigarren marka azkarrena (22.40) eginda, saria jaso zuen.



Presa, Zegamako sariarekin J. ORMAZABAL

Teknikazio saioa

Bestalde, hilaren 2tik 5era, Ostadar SKTko Naroa Furundarena Urkola atleta eta Oscar Goikoetxea Bercedo Castellon (Valentzia) prestatzailea izan dira Espainiako Atletismo Federazioak antolatutako luzera eta altuera jauzietako teknikazio saioetan lanean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Zumaiaiko FT - Ostadar SKT Larunbata. 15:45. Aita Mari, Zumaian.
GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Hondarribia FE Igandea. 17:55. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA
Texas Lasartearra CF - Urnieta CD Larunbata. 16:25. Michelin kirol gunean.
Hernani CD B - Ostadar SKT Larunbata. 18:30. Zubipe, Hernanin.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Urki CD B Igandea. 16:00. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA
Ostadar SKT - Ast. Mundarro FKE B Larunbata. 18:15. Zubietan, Donostian.
Texas Lasartearra CF B - Sporting de Herrera B Igandea. 14:05. Michelin kirol gunean.
Hernani CD C - Texas Lasartearra CF Igandea. 12:15. Zubipe, Hernanin.
K. I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Touring CD D Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.
K. I. MAILA, UDABERRIKO K.
Ostadar SKT C - Internacional CD C Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.

K. I. MAILA
Hernani CD - Ostadar SKT (neskak) Larunbata. 09:45. Zubipe, Hernanin.
EUSKAL SELEKZIOA
Kirol egokituen Euskal federazioko futbol ataleko emakume zein gizon taldeek Gaztela eta Leonen aurka jokatu duten neurketa prestatzeko entrenamendu saioa egingo dute. Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
ARETO-FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Herrikide Garaje Tolosa Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Eibartarrak FT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Antigua Luberi KE - Eguzki Bod. Ayesa Larunbata. 14:00. Egiako Kirol., Donostian.
KADETE MAILA
Lauburu KE Ibarra - Eguzki Goxokis Goxua Larunbata. 13:00. Belabieta kirol., Ibarra.
SASKIBALOA
II. MAILA
Hondarribia Ikasbasket- Ostadar SKT Igandea. 17:40. Hondartza kirol, Hondarribian.

III. MAILA
Ostadar SKT - Erroibide AIB Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
J. ERRENDIMENDUA ZILARRA
Saski Axular - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Benta Berri kirol., Donostian.
J. PARTAIDETZA
Aldapeta Maria ik. - Ostadar SKT Igandea. 12:15. Aldapeta Maria ik., donostian.
K. ERRENDIMENDUA URREA
Car. Amute Hondarribia - Ostadar SKT Igandea. 17:40. Hondartza kirol, Hondarribian.
K. ERRENDIMENDUA ZILARRA
Arri BKL Txindoki - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Antzizar kirol., Beasainen.
K. PARTAIDETZA, 9-16 POSTUAK
Ostadar SKT - Albizu Harategia Debasket Larunbata. 10:00. Maialen Chourraut kirol.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Ostadar SKT - Bera Bera Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Harresi - Ostadar SKT Igandea. 13:30. Hondartza kirol, Hondarribian.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Harresi Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Aiztondo NKT - Ostadar SKT A Igandea. 11:00. Ernio-bea ik., Villabonan.
Mayumi 2 - Ostadar SKT B Larunbata. 10:30. La Salle, Irun.
PILOTA
UDABERRI, GOMAZKO P. SENIORRA
Intza - Urnieta Ostirala. 18:30 (3. partida). Loidibarren pil.
ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
Intza - Ilunpe 1 Ostirala. 18:30 (2. partida). Loidibarren pil.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Tolosa 1- Intza Igandea. 10:30. Beotibar pil., Tolosan.
ESKUZ BINAKA, ALE. I. MAILA
Intza - LAPKE 1 Ostirala. 18:30 (1. partida). Loidibarren pil.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Uribealde Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA, I. MAILA
BRT Menditarrak - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Lekaroz, Nafarroan.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Gipuzkoa Sortzen - EKIN Eraikuntzak Arratiko Zekorak RT

Larunbata. 18:25. Michelin kirol gunean.
IGERIKETA
HERNANIKO SARIA
Buruntzaldea IKTKo igerilariek Hernaniko Sarian parte hartuko dute. Larunbata. 15:00. Udai kirol., Hernanin.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo master mailako Kideek Gipuzkoako txapelketa dute. Larunbata. 16:00. Ipuruia kirol., Eibarren.
ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Lasarte-Oriako atleten pista denboraldiko 23 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa zein proba librean jardunaldia izango dute. Larunbata. 15:30. Antonio Elortza Bel., Donostian.
EUSKADIKO TXAPELKETA
Lasarte-Oriako hainbat korrikalariek Euskadiko txapelketa den Txindokiko krosean lehiatuko dute. Igandea. 09:15. Ordizian.
XAKEA
II. MAILA
Gros H - Taula A Larunbata. 16:00. Karmelo Bakda pil., Donostian.
III. MAILA
Taula B - Astigarraga C Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

LOKEko tenislariak, Gipuzkoako finaletan

LOKE Tenis ataleko gazteek banakako Gipuzkoako txapelketa lehiatu dute 2024. urteko azken hiruhilekoan. Kanporaketak gainditu eta taldeko hiru kide izan dira final edo kontsolazio finaletan lehian. Lide Sobrado txapeldunorde izan da kadete mailan

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Tenis ataleko kideak banakako Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten urritik abendura eta taldeko hiru kide finaletan izan ziren lehian. Lide Sobrado kadeteen mailako txapeldunordea izan zen. Kontsolazio finaletan bi taldekide garaile izan ziren maila ezberdinetan: Laiene Ugarte, kadete mailan, eta Oihane Iradier, infantil mailan.

Abenduaren 15ean, Donostiako Monseko kiroldegian Gipuzkoako txapelketako sariak jaso zituzten herriko taldeko kideek. Aurretik jokatu ziren neurketak eta LOKEk hiru ordezkari izan zituen.

Kadete mailako finalean, Lide Sobradok ezin izan zuen aurkaria garaitu; ederki jokatu arren, 3-6 galdu zuen.

Maila bereko kontsolazio finalean, Laiene Ugarte izan zen jokoan eta 4-1 gailendu zen gaztea.



Sobrado (ezkerrean), Ugarte eta Iradier (eskuinean), garaikurrekin. LOKE TENIS

Infantil mailako kontsolazioan ere Oihane Iradierrek garaikurrara eskuratu zuen. Joko polita eginenez, 4-3 irabazi zuen.

Herritarren presentzia

Bestalde, Euskal Tenis federazioak *Euskal Tenisaren historia bat irudietan* liburua argitaratu

zuen. Horretan, Euskadiko tenisa eta bere historiari erreparoa egiten dio liburuak irudien bidez.

LOKEko klubeko informazio eskaintzen du bere orrialdeetan eta prestatzaile Mariasun Yurrita mitoen atalean agertzen dela jakitera eman du klubak.

Beltzakek saskia entregatu du

Beltzak RTK zozkatzen zuen saskia Montse Martin Sanchez. San Tomas eguneko ONCEko sariko azken lau zenbakiekin bat zetorren Martinen txartela eta etxera eraman du Tiburtzio Artizar tabernan zegoen saski oparora. Balerdi harategitik eta Kokotxa arrandegitik ere igaro da irabazlea bere sariak jasotzera. Errege egunean familiarekin gozatuko zuela adierazi zuen zortekoak.



TXINTXARRI

Ipar martxan lehen pausoak emateko ikastaroak

Ostadar Ipar Martxa taldeak 2025. urteari hasiera emateko ipar martxaren diziplinan murgiltzeko bi hastapen ikastaro eskainiko ditu hilaren 18an eta otsailaren 15an.

Saioak hiru ordukoak izango da, 10:00etatik 13:00etara. Ins-kripzioa egiterakoan 20 euro ordaindu behar dira. Ostadar Ipar martxa taldeak makilak utziko dizkie ikastaroa egin eta materialik ez duen pertsonari. Izen ematea egiteko eta saioen gaineko zalantzak argitzeko 943-36 04 33 edo 626 59 56 85 telefono zenbakietara deitu edo ostadar@ostadarskt.eus helbidera idatzi dezakete interesdunek.

Txindokira igoz eman die amaiera LOTMEK 2024ko jarduerari

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideek abenduaren 22an Txindokin eman zioten amaiera urteko jarduerari.

Hotza, behelainoa, lokatza eta bustita eta irristakor zegoen ibilbidea. Edonola ere, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, tontorreraino iritsi eta ohikoa izaten den talde argazkia atera zuten. Larraitzeraino jaitsi eta hamaiketako ederra eginda indarrak berreskuratu zituzten.

Horrekin batera, gogorarazi dute irekita dagoela elkarteko bazkidetzak eta mendi federazio-ko lizentziak berritzeko epea. LOTMEren webgunean topatuko dute informazio gehiago interesa dutenek.

Herriko igerilariak bikain eman diote amaiera 2024ari

Lasarte-Oriako ordezkariak ederki jardun dira Paco Sanchez sarian eta Eguberrietako Nazioarteko Sarian

Txintxarri

2024. urteari amaiera emateko Buruntzaldea IKTko eta herriko igerilariak bi hitzordu garrantzitsu izan zituzten abenduko azken asteetan.

Hil horretako 21ean, igeriketa taldeko alebin eta benjaminek 24. Paco Sanchez Sarian parte hartu zuten.

Alebinek bi proba egin zituzten. Aukeran izan zituzten edozein estiloetako 100 metroko proba eta 200 m. lau estilo saioa.

Benjaminek, aldiz, proba bakarra egin behar izan zuten. Taldeko kide gehienek bular

estiloko 50 m. proba aukeratu zuten eta izan zen 50 m. edo 100 m. libre saioetan aritu zenik ere.

Gaztetxoek euren garapena erakutsi, markak ondu eta lehen postuetan izan ziren.

Eguberrietako Igeriketako Nazioarteko Sarian ere izan ziren hil horretako 27an Buruntzaldea IKTko kidea eta ez ziren herritar bakarrik izan, Leire eta Ainhoa Martin ahizpak Euskadiko selekzioarekin lehiatu ziren.

Gipuzkoako zein Euskal Herriko igerilariak gain, estatu mailan eta nazioarteko mailan dabilzan igerilariak ikusteko



Eguberrietako Nazioarteko sarian parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

parada izan zuten Donostiako Paco Yoldi igerilekietara bertaratu zirenek.

Igeriketa taldeko kideek ezin izan zituzten kanporaketa probak gainditu. Hala ere, euren markak ontzea lortu zuten hainbat probetan (ikus arrosa koloreko koadroa).

Ainhoa eta Leire Martin ahizpek, aldiz, finalerako sailkapena eskuratu zuten eta biak izan ziren lehen postuetan. Ainhoa 50 m. tximeleta eta 200 m. lau estilo probetan garaile izan zen eta Leirek bigarren postua eskuratu zuen 100 m. bizkar eta 200 m. lau estiloetan.

Eguberrietako Nazioarteko sariko markak

- Ibon Elola, 50 m. bizkar.
- Miren Sarobe, 100 m. estilo librea.
- Oihan Matute, 50 m. tximeleta eta 50 m. bular.
- Mayi Gorostegui, 50 m. bizkar.
- Iker Gorostegui, 100 m. tximeleta.

Urtea hasteko

2025eko lehiak, aldiz, hil hone-tako 11n hasiko dute. Igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutuek Hernaniko 26. Saria lehiatuko dute eta master mailako lau kidek Gipuzkoako VII. Master Txapelketari aurre egingo diote Eibarren.

Kirolariak ere, protagonista Eguberrietan

Saskibaloia, futbol zein areto futbol txapelketak jokatu dira Lasarte-Oria. Jokalariak euren onena eman dute Michelin kirol gunean zein Maialen Chourraut kiroldegiko kantxan. San Silvestre lasterketak amaiera koloretsu eta alaia eman dio 2024 urteari

Txintxarri

Kirol ligek etena izan duten arren, herriko kirolariak ez dute atsedetik izan. Inguruan jokatu diren txapelketa edo lasterketa ezberdinetan lehiatu dira eta herrian antolatutako ekimenetan ere ez dute huts egin.

Abenduaren 28an, saskibaloiaz zein futbolaz gozatzeko aukera izan zen. Michelin kirol gunean, Ostadar SKTk goizean eta Texas Lasartearrak arratsaldean antolatutako nesken futbol lehiak ikusi ziren. Kadete mailan, eguerdian, txapeldunen kopa Aiztondok altza zuen zerura, Ostadarren aurka 1-2 irabazita. Arratsaldean, Realak irabazi zuen alebin mailako tor-

neoaren bigarren aldia, finalean Añorga garaituta.

Maialen Chourraut kiroldegian, aldiz, 3x3 saskibaloia txapelketako partidak izan ziren. Benjaminetik hasi eta Senior mailakoetara arte, jokalariek ugarik gozatu dute euren kirol kuttunaz. Elkarren aurkako norgehiagokez gain, hiruko saskiraketen txapelketak egin dituzte.

Urteari amaiera eman

Hiru egun geroago, giro alai eta ederrean jokatu zuten VIII. San Silvestre Lasterketa. Korrika edo ipar martxako makilekin, 454 pertsona animatu ziren 2024a moztortuta eta kirola egiten agurtzera.

1 zenbakidun dortsala Ostadar Ipar Martxako kideek eraman zuten, pozik eta harro, aurten 10 urte bete dituztela ospatzeko. Ariketa egin ostean, kategoriatan bakoitzeko azkarrenek, parte hartzaile beterranoenak eta mozorro originalenak sariak jaso zituzten.

Azkenik, hilaren 4an, amaiera zirraragarria izan zuen Gabonetako Aretoko Futbol txapelketak. Lepo betetako Maialen Chourraut kiroldegiko kantxan Munduko bidaiariak, Okendo Team eta Los Jopus izan ziren txapeldunak. Lehenek azken momentuan sartu zuten garaipen gola euren finalean. Alebin eta infantil mailan penaltietan erabaki ziren garaileak.



Maila ezberdinetako taldeek parte hartu zuten 3x3 saskibaloia txapelketan. TXINTXARRI



Ostadar SKTk eta Texas Lasartearra CFk antolatutako nesken txapelketek Michelin kirol gunea bete zuten abenduaren 28an. Realak (eskuinean) izan zen garaile alebin mailako lehiak. TXINTXARRI



Maila ezberdinetako jokalariek euren balioa erakutsi zuten eta ederki igaro zuten eguna. Kadete mailako txapelketan Aiztondok (erdian, morez) irabazi zuen lehiaketa. TXINTXARRI



Mozorroak eta jaia nagusi izan ziren San Silvestre lasterketan. Ostadar Ipar Martxako marmokek 1 dortsala jaso zuten eta hainbat izan ziren sarituak. TXINTXARRI



Maialen Chourraut kiroldegiaa lepo bete zen Areto Futbol txapelketako finalak ikusteko. Ederki jardun ziren gazteak. Ezkerretik eskuinera, Munduko bidaiariak, Okendo Team eta Los Jopus izan ziren garaileak. TXINTXARRI

Txapelketa ezberdinen albiste zein argazki galeriak eskuragarri daude txintxarri.eus webgunean

KOMIKIA

URTE BERRI ON!



ZORION AGURRAK



Larraitz
Igeriketa, korrika, saskibaloia, crossfita... ez dago kirolik egin ezin duzunik? Indarrak hartu erronka handia duzu eta aurretik bulegoko taldearekin. Zorionak Ttakuneko lankideen partetik.



Maddi Z
'Ai guix iu a Merri Krismas, abxirigüi...'. 'Eguberriaroa' pasa eta gero, telita marinera ekitaldi kulturalen prezioak! Urtarrileko aldapa! Hori leuntzeko, janari garbia, badakizu, azaburuak... baina gure hamaiketako eta gero! Zorionak Ttakuneko lankideen partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

OHARRAK

Titare ikastaroa

Zabaltzeke dago hilaren 16an hasiko den Titare jostungintza tailerreko izen ematea. Parte hartu nahi dutenak 13tik aurrera jar daitezke harremanetan Ttakun KEREkin, 695 78 53 89 zerbakiaren edo kultura@ttakun.eus-ren bidez. Tokiak bete arte jasoko dituzte ikasleak eta parte hartzaileak ostegunero elkartuko dira, Emakumearen Zentroan, 15:30etik 17:30era.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 10	GIL
LARUNBATA, 11	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 12	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 13	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 14	KNIESE
ASTEAZKENA, 15	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 16	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behea, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdi-gunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

LANA

ESKARIA

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrak emateko norbait

behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostan etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c.-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua: SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administratia

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdallete, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN. Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus



LASARTE-ORIA Literatura

Jose Luis Navaroren *Dos libros lasartearras del siglo XVII* liburuaren aurkezpena aurrera eramango dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Sarrera doakoa da.
Hilak 16, Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo zinema taldeak *Emilia Perez* proiektatuko du Manuel Lekuona Kultur Etxean. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako *Liztor kapitaina* proiektatuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako *Emilia Perez* proiektatuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA Opera

Giacomo Puccini musikagilearen *Tosca* obra ikusteko aukera izango dute opera zaleek Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

OSTEGUNA 16

LASARTE-ORIA Literatura

Jose Luis Navaroren *Dos libros lasartearras del siglo XVII* liburuaren aurkezpena aurrera eramango dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Sarrera doakoa da.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Antzerkia

Markeliñe antzerki konpainiak *Zepo Zapo* familia antzerkia erakutsiko du. 17:00etan izango da, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, eta sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako *Harold y el lapiz magico* proiektatuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako *¿Es el enemigo?* proiektatuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo zinema taldeak *Marco* proiektatuko du Manuel Lekuona Kultur Etxea. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Antzerkia

Artedrama konpainiak *Miñan* obra oholtzaratuko du Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako *Sonic 3* proiektatuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako *Cuando cae el otoño* proiektatuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.



ARTEDRAMA

LASARTE-ORIA Antzerkia

Artedrama konpainiak *Miñan* obra oholtzaratuko du Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan; Ibrahima Balderen bizipenak eszenaratuko dituzte. Sarrerek 6 euro balio dute.
Hilak 25, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 20:00etan.

WHATSAPP KANALA

Lasarte-Oriaren berri, gertutasunez eta euskaraz, orain WhatsApp bidez ere bai!

txintxarri

BATU!



BAZKIDETZA TTAKUN

KULTUR ELKARTEA



BAZKIDE KANPAINA




Urtarrilaren 31a arte bazkide egiten direnen artean EUSKARALDIA 2025eko produktuak zozkatuko ditugu.

Bazkide giztiak hilabetero zozketetan parte hartzeko aukera dute!!

kultur ekitaldietarako sarrerak, bazkari edo afariak, produktuak, herriko komertzioetan erabiltzeko bonoak, etab.

bazkide egiteko:



Euskara eta kultura bidelagun !

Zer babestuko duzu?

• Haur eta gazteen euskarazko aisialdia

Amarau kluba
Gazte kluba
Kuadrillategi
Faktoria
Udako Txokoak
Udako kanpaldiak

• Helduen euskarazko aisialdia

Plaza Dantza eta Muxikoak
Solaskide programa
Titare jostintza taldea
Helduentzako tailerrak

• Kultur ekintzak

Euskal Inauteriak
Bertso saiokak
Azkorteke erromeria
Sorgin Dantza
Santa Ana parodia
Euskararen Maratoia
Euskaraldia
San Tomas azoka
Olentzerori ongietorria

• Txintxarri aldizkaria

• Ikastaroak

- Lehenetsuna zenbait izen ematetan
- Deskontuak
- Zozketetan parte hartuko duzu
- "Ttakunberri" buletin digitala jasoko duzu

Zein abantaila izango dituzu?

